

On Faustino Bargotan sortu zen 1913garren urteko abenduaren 15ean, nekazaritzatik sosak irabazten zituen familia batengan. Haren guraso Miguel eta Elvirak zazpi anai-arreba ekarri zituzten mundura eta zazpi horietatik anaia Tirsorengan eta Faustinoarengan baizik ez da euskararen aldeko maitasuna loratuko.


Lehendabiziko ikasketak jaioterrian berean egin ondoren, Bargotatik hurbil dagoen Sansolen ikasi zituen batxilergoko lau lehenabiziko mailak, irakasle Maximo Rubio zuela. Geroago, Iruñeko Apaizgaitegira joanen zen ikasketak jarraitzera. Dena den, seminario horretan arazoak izan zituen eta ez zuen luze iraun. Izan ere, ulergaitza gertatzen zitzaion ikasgaien artean euskara ez ematea, Nafarroako elizparrokia aunitzetako herri-hizkuntza izanik. Eskaera egin zuen, alferrik ordea.

Beraz, Logroñoko Apaizgaitegian apez-ikasketak burutu, eta, arazoak arazo, bere Aitzin Meza Bargotan eman zuen. Geroxeago, Matute eta

Badarán herrietako apez izendatzen dute.

Lau urtez apez-zerbitzuari lotuta ibili ondoren, Fidel Garcia apezpikuak deitzen du Logroñoko Apaizgaitegira irakasle joan zedin, zehazki Teologia irakaslea eta Bokazioetako nahiz

Faustino de Zerio (1913-1982). Idazle eta abertzale baina, batez ere, humanista handia izandako pertsona.





Miguel eta Elvira, zazpi seme-alabaren gurasoak. Horiarik hiru gaztegarterik hil zitzaizkien. Beste laurak, Jainkoarenganako maitasunean eta gizalegean hezi zituzten. Seme-alabei utzitako ondasunen artean, ordea, ez zegoen euskara, erdaldunak baitziren.



Zeriotarren oinetzeko armarrria, Bargetan. Zerio, zetaz idatzia, "harrietan idatzia" esaten zuen berak erakunde publikoetan idazkera hori defendatzerakoan.

Misioetako ordezkari izateko. Lana gartsuki egin zuen, ikasleen zein lankideen artean mirespena eta begirunea sortuz.

Bizitzako azken urteak eri eman zituen, gaitz larriak harrapatuta. Arnasa nekez hartzen du, eta, horrexegatik behin betiko Bargetara abiatuko da 1977an, Logroñoko lana alde batera utzita. Jaioterrian biziko da azken hatsa bota arte. Gaixotasun horrek ordea, ez du gure gizonaren gogoahultzen eta are gartsuago segitzen du idazten. Herriko gazteek eskatuta, euskara klaseak ematen hasiko da gainera, eritasunak bidea moztu artean.

On Faustino 1982garren urteko maiatzaren 15ean hil zen, Iruñeko Klinika Unibertsitarioan. Gorpua Bargetako kanposantura eramán eta hantxe hartu zuen betirako atsedena.

## INGURUA

Bargota herri txikia da, Kodes izeneko mendietan eta Ebro ibaiaren artean kokatua. Lizarrako Merindadekoa da, Logroñotik kilometro gutxira, beti ere, eta, garai batean Kalagorriko Elizbarrutiari egokitu zitzaion. Esan liteke Bargotaldea Errioxako luzapena dela.

Alde handia dago beraz, Bargota eta Nafarroako herri euskaldunen artean, eta, urrun ere gelditzen dira gainontzeko euskal herrialdeetako eremu euskaldunak. Garai hartako zapalketa politikoa ere kontutan hartu beharra dago, ez baitugu atzendu behar On Faustino de Zeriok bere Aitzin Meza 1936garren urtean eman zuela. Giro horretan, bada, bazter horietako auzolagun bat euskaldun izatea, eta, are "lingua navarrorum" deritzaionean idaztea benetan garrantzia handikoa da. Badu merezimendu, zinez.

Postaz jasotako gramatika-liburuen bidez, bera eta anaia jaioterrian hasi ziren euskara ikasten, ondoren ikasketak, uda partean, Andoainen sakontzeko.



Bargota, Kodes mendiaren eta Ebro ibaiaren artean dagoen herriska. Bertako biztanleak nekazaritzatik bizi dira, batez ere. Euskal Herriko inguru euskaldunetatik oso urrun dago herri txiki hau.



Bargotan, Nafarroako zein Euskal Herri osoko herri gehienetan bezalaxe, oso jende gutxik izaten zuen ikasten jarraitzeko aukera. Faustinoaren etxetik, ordea, bi anaia joan ziren ikastera: Faustino bera, seminariora eta, Tirso, anaia, Irakasle Eskolara. Biek burutu zituzten, bada, goi-mailako ikasketak eta biek sentitu zituzten euskararenganako maitasuna eta zaletasuna.

# 4

Iruñeko Apaizgaitegian zebile,a, euskararen aldeko jarrera agertu zuen. Jokabide hori ordea, ez zen hango zenbaiten gustokoa izan, eta, horrexegatik Logroñoko Apaizgaitegira joatea eskatu zuen. Izanez ere, urte haietan Bargota Kalagorriko Elizbarrutiari zegokion eta gure apezak elizbarruti horretako apezpikuari men egin behar zion.

Geroxeago, Gerra Zibila hasia zela, bere euskarazko Aitzin Meza eman zuen, eta, berriz ere arazoak izan zituen oroigarriak euskaraz ere argitara emateagatik. Orduan kontseilu ematen diote bertatik hilabete batzuetarako alde egiteko, deus txarririk gerta ez zekion. Hori dela-eta, Oionen izkutatzen da, hau da, Arabako herri mugakidean.

Aipatutako horiek guztiek argi eta garbi salatzen digute zeinen zaila izan zen On Faustinoenak bezalako iritziak zerabilzkien gizon-emakume batentzat garai hartako Nafarroan bizitzea.

Bargotako Santa Maria Elizako Dorrea. Eliza horretan eman zuen Faustino bere Aitzin Meza (1936). Bere bizi guztiko ametsa beteaz, euskaraz esan zuen meza eta, gerra garaia izanik, erbestera egin behar izan zuen horregatik.



Bargotan mahats-biltzea da nekazaritza lanetan garrantzitsuenetakoa. Herria Nafarroako Errioxa aldean dago eta, mahatsa heldutakoan, denak mahastietara doaz, gainerako zeregin guztiak alde batera utzita.

## IZAERA

On Faustinori bi aipamen egin behar zaizkio behintzat, hartaz mintzaterakoan: alde batetik, maisu handia, eta, bestetik, humanista handia.

Maisu handia, bada, —eta ez irakasle— gehiago irakasten baitzigun bere etsenpluaren bidez bere klaseen bidez baino. Horretan bat gatoz haren ikasle izateko zortea eduki dugun guztiok.

Hil zenean, idazki asko eta asko agertu ziren haren omenez Errioxako eta Nafarroako hainbat komunikabidetan, gehienak haren ikasleek idatzitakoak. Honatx horietako baten pasarte bat, bere giza-interesa dela medio, gure ustez guztiz aipatzea merezi duena:

"Ikasgelan galdetzen zigunean, (denoi bataio-izenez deitzen zigun) gugan iltzaturik zeuzkan bere begi urdin eta sarkorrek nola halako beldurra ematen ziguten. Zentzugabeko erantzunak ematen baldin bagenizkion, batzutan bihotz onez irri egiten zuen, eta, bestetan, kolkoan montio handian zeuzkan esanera jator horietako bat botatzen zuen. Egia esateko, inor ere ez zuen duda mudatan uzten eta inori ez zion osatu gabeko erantzunik ematen. Horrelakoa baitzen —zorionez— sekulako.

Bai, beti ene irakasle gogokoen artean eduki nuen. Eta ez dira gutxi izan gero urte luzeetan barrena...! Zer dela-eta ezin izan dut ahaztu? Bada, gizona zen aldetik maisu osoa ere bazelako.

Ikaslearekiko harremana ikastratabide hutsaz haratago zihoan: alde horretatik 'abangoardista' izan zen: harentzako gu, ikasleok, 'izan baginen' aorismoak eta ablatibo osoak alde batera utzita. Berak arras ongi zekien ikasleen artean zer edo zer ongi ez zihoanean, eta, iduritzen zait hantxe ikusten ari naizela `egoerak sortuz edo eraginez' 'berdin dio zein ikasleren' arazo honen edo huraxeren berri jakiteko.

Behin batean, ikasturte amaierako opari bat egin nahi izan genion, baina ez zigun inola ere onartu. Berari aski zitzaion ikustearekin ikasketetan aurrerabiderik gertatzen zela gugan eta jakitearekin konponduak zirela gure kezka...".

Idazkiak modu bertsuan segitzen du, baina adibide gisa nahikoa deritzogu, aski ongi islatzen baita maisu eta irakasle moduan zeukan izaera.

Alabainan, bere dohain guztien artean garrantzizkoena, eta aurrekoari herstuki lotuta agertzen zaiguna, humanista da, humanista handia, gainera. Ezagutu zuen orok haren gaitasun komunikatiboa nabarmentzen du. Ordu luzeetan egon zitezkeen harekin solasean eta iduri zuen denbora gelditua zela, arrunt atsegina eta zentzuduna baitzen. Sekulan ez zuen agindurik eman baina etsenpluen bitartez adierazten zigun.

Kodesko Santutegia, Yoar mendizerraren magalean. Inguruko jendeak Ama Birjina horrenganako eraspen edo debozio handia du, mendi haietatik beren biziak eta ondasunak babesten baititu.



ATZERA



Logroñoiko Apaizgaitegia. Garai hartan, ikasketa zentro batera iristea hain zaila izanik, seminarioek ikasten jarraitzeko aukera eman zieten gazte askori. Gazte nafar asko eta asko joan zen apaizgaitegetara ata, hori zela ata, inon baino apaiz gehiago zegoen orduan Nafarroan, estatuari zegokionez. Bargota, Logroñotik hurbil egonik, Kalagorriko Elizbarrutian zegoen. Bertan, osasunak lagundu zion bitartean, On Faustinok irakasle ihardun zuen Erretorika, Poetika, Latina eta Grekoa irakasten.

Seminarioan irakasle moduan zituen ospe eta izen handia ikusita eta hain kristau humanista handia zenez gero, Logroñoako apezpikuak Erroman egin zen Eukaristia Biltzarrera bidali zuen On Faustino.



AURRERA

Inoiz ere ez zuen esan zer egin politikan edo nola jokatu euskarari buruz, baina hortxe dira Bargotako hauteskunde-emaitzak edota hortxe da Ikastolaren alde egin zen Eskola Publikoaren itxiera, soziologoek ikergarri.

Apaltasuna alde guztietatik zerion. Honatx beste adibide bat: Logroñoeko Katedralean kalonje izendatuta, kargu hori errefusatu egin zuen esanez apaizgaitegian zerabilen lana atsegingarriagoa gertatzen zitzaiola eta haretzek zuela garrantzirik handien.



Euskaraz emandako Aitzin Mezaren oroigarrietan, agerian daude euskararenganako maitasuna eta sentimendu hori bere barruan hartzen ari den indarra. Inguruak ez zion asko laguntzen baina hala ere, azken muturreraino eraman zituen bere ideiak.



Faustino jaunak ereindako hazia fruituak ematen hasi zen handik gutxira. Biko Erentzun Ikastoiako ikasgelak Bargotako umez betetzen hasi ziren eta, azkenean, bertako Eskola Publikoa itxi egin behar izan zuten.



Bargotatik kilometro gutxitara, Logroñotik Iruñera doan errepide ondoan, Poyoko Ama Birjinaren omenez egindako ermita dago Herritar guztiek debozio handia diote Ama Birjina horri eta On Faustinok berak ere liburu bat eskaini zion. Bertan, baselizaren eta herriaren historiak azaltzen ditu gainetik eta inguruko toponimia ere aztertzen du pixkat.

"Faustino de Zerio Segurari Abertzaletasunaren eta Fedearen garra gudan bizirik mantendu zuelako". Hitz gutxitan baina edertasun handiz, horrela laburtu ditu bere sendiak On Faustinok egindako lana eta erakutsitako ikasbidea.



Salamancako Unibertsitatean ere izan zen Faustino jauna. Horreiko jakitun batek, nola ez, garai hartako jakinduria gunea ere derrigorrez ezagutu behar. Hara joan zen Letra Klasikoetako lehen hiru mailetako azterketak egitera. Azken bi mailak, ordea, ezin izan zituen egin apezpikuak baimenik eman ez ziolako seminarioa utzi eta Tormes Hirira bizitzera joateko.

## PENTSAERA

"Faustino de Zeriori, gudan bizirik mantentzeagatik Fedea eta Abertzaletasunaren sua". Horra familiakoek hilobian ezarritako hilarriaren gainean euskaraz idatzitako epitafioa, On Faustinoren pentsamolde politikoaren eta erlijiosoaren adierazgarri.

Harentzako horren garrantzi handia izan zuten bi puntu horietan datza idazle moduan egindako sorme-lan guztia. Izan ere, bere fedeak eta lagun hurkoarekiko maitasun handiak bultzaturik apaizgoari heldu zion, modu horretan bere lan pastoralara indar handiagoz egin ahal izateko. Bestetik, abertzaletasunaren defentsa azpimarratu behar da, Nafarroa Euskadi barrenean ikusten zuen eta hizkuntza zen askatasunbidea. "Zapaldutako herriak bere hizkuntza bizirik mantentzen baldin badu, bere esku izanen du askatasunaren giltzarria". Esaldi hori behin eta berriz entzuten genion.

Adierazpen horiek guztiek arazo franko erakarri zizkieten bizitzan zehar, lehendabizi Iruñeko Apaizgaitegian, gero bere Aitzin Mezan, eta, ondoren, bere eguneroko lanean.



## LANBIDEA

Lanaren lehendabizko lau urteak apez-zerbitzuan ematen ditu Errioxako Matute, Badarán eta Anguiano udalerrietan. Lau urte horiek igarotakoan, ordea, eta egindako lana aintzat hartuta, Logroño-ko Apaizgaitegira deitzen dute, eta, bertantxe iraunen du eritasun larriak mundutik eraman artean.

Zaletasun handia zuen hizkuntza hiletarako. Berak ez zuen izen hori onartzen eta latinezko eta grekerazko eskolak ematen ditu bai seminarioan,

bai Errioxako hiriburuko zenbait ikastetxetan ere, jakinmin handia sortuz bere ikasleen artean. Geroago, hebraiera hasiko da ikasten bere kasa —euskara ere bere kabuz ikasi zuen gisan— eta lortu zuen hizkuntza hori nola edo hala menperatzea.

Letra Klasikoen ikasketari lotzen zaio Salamankan, eta, hiru maila librean egiten ditu. Ikasketak amaitzeko, ordea, beharrezkoa du azken bi mailak Tormesko Hiriburuan berean burutzea, eta, berriro ere gotzaiaren ukazioa hartuko du.



Bere lanetan leku nabarmena izan dute beti erlijio gaiak, euskaraz zein gaztelaniaz. Liburu hau erdaraz idatzi zuen bere herrikideengana errazago iristeko. Oraingo honetan ere, Ama Birjina da bere idazgairik kutunena.

# 10

Alabainan, ikasi eta ezagutu zituen hizkuntza guztien artean, "Euskara da —halaxe esaten baitzuen berak— nere barnean eldu nadin biderik laburrena ta argiena; eta gure aurrekoen izaera ezagutzeko ere bai".


Hala ere, seminarioan esanik badakigu bere bizitzan zehar burututako lanik garrantzikoena izan zela etxe horretan apez-bokazioen alde egindakoa. Hartara, garai hartako boletinak erakutsita, nekez aurkitu daiteke hark idatzitako artikulurik gabeko alerik.

Arte eta Lanbideen Eskolatik deitzen dute Erljio irakasle izateko, eta lanean hasten da. Baina, ikastetxe publikoa izanik, eskatu zioten men egiteko Mugimenduaren Printzipioei sinadura ezarriz agiri batean. Ezezko biribila eman zien, bidenabarrean nagusiei eskatu zien ken zezatela postu hartatik.

Laburpen gisa, esan dezakegu, On Faustinoren bene-benetako lanbidea apezgoa izan zela —apezgoa lanbidea izatekotan, jakina— eta hortik eratorrita irakaskuntza. Hori bai, beti astia harrapatu zuen ikasteko, ikertzeko eta idazteko.



Bi lan hauek apaizgaitegiko gazteentzat eginak dira, bere ikasleentzat, alegia. Liburuotan ere erlijio gaiez idazten du gaztelaniaz. Hemen erabiltzen du, lehen aldiz agian, *Juan de Biurko* ezizena. Ondoren, ezizena laburtu eta *Biurko* goitizenaz izenpetuko ditu bere idazki gehienak, *Euzkadi* aldizkarian politikari buruz idatzitakoak, batez ere.



Faustino Zerionen sinadura. "Zeriotar Paustin" jartzen du. Argitaratutako liburu, lan eta idatziak ez zituen inoiz horrela izenpetzen. Sinadura hori bere gutun eta idazki pribatuetan baino ez zaigu agertuko.

## IDAZLANAK

On Faustino de Zerioeren idazlanak aztertzerakoan, arestian bezala orain ere aintzat hartu behar ditugu bere izaera eta bere pentsaera. Hori gogoan edukita, ikusiko dugu bere idatzietan bi ardatz nagusi agertzen direla: politika eta erlijioa.

Erlijiosoak dira seguruenik ugariak, lehenago adierazi dugun bezala, ia ia boletin guztietan azaltzen baita berak idatzitako artikulurik Logroñoko Apaizgaitegian Bokazioetarako ordezkari izendatu zutenetik aurrera.

Nola halako garrantzia duen lehendabiziko idazlana, gazteleraz, 27 urtetan izkribatu zuen, 1940garren urtean, *Novena de la pureza de la Inmaculada Concepción (Garbitasunaren bederatziurrena Sortzez Garbiaren ohoretan)*. Gazteentzako lan horretan sentiberatasun handiz heltzen dio garbitasunaren dohainari eta gazteei gonbitea egiten die horri eutsi diezaioten, horixe baita Ama Birjinaren bitartez Jesusenganaino iristeko bidea. Lana sinatzeko *Juan del Biurko* goitizena erabili zuen, aurrerantzean beti agertuko dena.

1941garren urtean beste bederatziurren bat idatziko du, oraiko honetan, *Beato Valentín de Berrio-Ochoa (Balendin Berriotxoa Dohatsuari)* eskeinia. Gazteleraz ere izkribatua, debozio handia zitzaion dohatsu horri seminarioan.

Hurrengo urtean gazteleraz ere liburuska bat argitara ematen du santu-hotsean hil zen 19 urteko errioxar gazte baten omenetan eta haren oroigarri. Gaztetasuna eta garbitasuna goraiatu eta laudatu zituen.

Geroago, eritasunarengatik lana utzita zuenean, gai erlijioa duten beste bi idazlan karrikatzen ditu gazteleraz. Honatx izenburuak: *Historia de nuestra señora la Santísima Virgen del Poyo (Poyoko Andre Maria Birjina Txit Santuaren Historia)*, eta, *¿La misa un problema? ¡Si! y ¡jño!! (Meza, arazoa ote? Bai! eta Ez!)* 1980an eta 1981ean idatzitakoak, hurrenez hurren.

11

# 12

On Faustino Bidankozera abiatu zen eskutitz batzuen bila. Mariano Mendigatzak R. Maria de Azkeri bidalitako gutunen berri jakin bezain laster. Bidankoze herria ezaguna zen beretzat, Tirso, bere anaia Erronkariko herri eder horretan aritu baitzen irakasle. Gutun horiei buruz ikerketa lan polita egin zuen eta Euskera aldizkarian argitaratu zuten lana.



Idazlan horiek argia ikusten duten bitartean, lanean dihardu eta berak euskaraz idatzitako idazkiak hasten dira plazaratzen Euskal Herriko zenbait aldizkaritan. Konparazio batera: *Zeruko Argia*, *Goiz Argi*, *Arantzazu eta Principe de Viana-n*. *Euzkadi* izenekoan gai politikoari heltzen dio zenbait artikulutan. Guztietan sinatzailea *Juan del Biurko* da edo *Biurko* besterik gabe.

Euskarazko argitalpen horietan olerkiak eta ipuin sakon bezain ederrak irakur ditzakegu, azpimarra eginez, beti ere, euskara ez zela On Faustinoren ama hizkuntza izan.



Nafarroan euskaraz argitara ematen zen *Principe de Viana* aldizkariak badakar bere heriotzaren berri, argitalpen horretako zuzendariak, Martzelino Gardek, idatzitako artikulua bidez-. "Zerio tar Paustin Jaun Agurgarria". Zuzen eta egoki biltzen dira bertan bere bizitzaren gorabeherak eta idazlanak.

Nafar idazle honek egindako lanen artean, politenetakoa dugu 1961ean Euskera deitutako aldizkarian plazaratutakoa, hots, bertan bildu baitzituen Azkuek Mariano Mendigatxa bidankoztarrari idatzitako gutunak. Bidankoze Erronkari ibarreko herria da.

Mariano Mendigatxa nekazari erronkariarrak, lehenengo, Luis Luciano Bonaparteri eman zion laguntza eta, ondoren, R. Maria de Azkueri, Erronkariko euskarari buruz ikerketak egin zitzen. On Faustinok gutun horiek guztiak bildu eta euskaltzale nahiz euskara ikerle guztientzat eskuragarri jarri zituen.

Lan horren garrantziaren handiaz jabetzeko, honatx A. Apat-Echebame-k (Angel Irigaray) kaleratutako Noticias y viejos textos de la Lingua Navarrorum izenburuko liburuan gai horren gainean dakarrena. Atalak honela dio:

"... Bargetako jakintsu euskaldunak, hots, Faustino de Zerio y Segurak aurkitu, aztertu, komentatu eta argitara eman ditu Azkueren gutunak. Lan hori ordea, izugarri ona da eta merezi du lerro zenbait horretaz aritzeko, gaitasun eta zehaztasun handia baitario alde guztietatik.

Bargetako Faustino de Zerio y Segura idazleak Azkuek Mendigatxari igorritako gutunak argitaratu zituen Euskaltzaindiaren Euskera aldizkarian, 1961ean; modu horretan osatu zuen Mendigatxak Azkueri bidalitakoa, arestian nola halako zabalpenez lerrootan hartu duguna.

Bi euskaltzaleon artean sortutako adiskidantzaren nondik norakoa zehazteko ezinbestekoa genuen bigarren zati hori. 20 gutun horiek iradokizun zabal eta zuzenekin batera karrikatzerakoan, nafar jakintsuak lan dokumentatua egin du, lan eskerga, eta mardula ere bai, 27 orrialde hartzen baititu aipatutako aldizkarian.

Lehenbizikoak 1902.eko irailaren 20ko data dauka eta honela hasten da: 'Ene adiskide Mendigachari. Ni baño lenago eldu zan zure eche ontara, zure eskutitz...'

Zeriok ederki dioen bezala, Mendigatxak nekez ulertuko zuen Azkueren euskara, arrunt ezberdina izaki; horrexegatik, ia gutun guztiak gazteleraz izkribatu zizkion, baten bat kenduta, erronkariara garbian idatzitakoa; bi urte baizik ez dira gutun batetik bestera.

Zerio Jaunaren lan hori benetan garrantzi handikoa denez, ezin diot eutsi nabardura batzuk saihesteari, aditu batzuek baizik ez baitute irakurriko bestela, hau da, aipatutako aldizkari horretako irakurleek, alegia.

Lan hori M.Victoria Jimeno eta Urtzainki andereñoari (euskara garbian) eskainita dago, eman dion laguntzarengatik esker onean, Mendigatxaren paperak haren esku utzi baitzituen.

Gutun eta postale guztiak argitara eman ditu, danetera hogei, eta guztietan agertzen dira biltzaileak egindako ohar egokiak, bi berriemaleen gaiak zehatuz, eta, aurreko lanaren zenbait ñabardura zuzenduz, Irigoyenek argitara emandakoa.

Lehenbizikoa beraz 1902garren urtekoa da eta azkena, 1915garren urteko urriaren 16koa.

Batzuk eta besteak irakurrita, Zerio jaunak uste du zenbait eskutitz galdu egin direla. Eta iruzkintzen du bi gizonen artean sortutako adiskidantza handia.

Bargotako idazleak esaten du Mendigatxa laborari azkarra zela, berez zetorkiola buru azkartasuna, baina ezjakina zela berez ez zegozkion beste euskaramoldeak konprenitzeko. Bere ikerketa lanean, Zerio ez du Printzearen gauzakirik edota argazkien gaineko aipamenik egiten, horren zabalki utzi zizkieten paperen artean. Bada salbuespenik, hots, Azkueren hiztegi handiaren liburuki bat. Mendigatxak bere hamabostgarren gutunean dio Bonaparte Printzeak argazki batzuk eskeini zizkiola. 'Galduak ote dira?'"

Gaiak modu beretsuan dirau. Lerrootara ekarri dugunari aski deritzogu On Faustinek egindako lan horren erakusgarri.



Bidankoze, Erronkariko zazpi herrietako bat. Bi euskaltzale handi eman zituen betidanik euskalduna izandako haran horrek: Prudencio Uhalde eta Mariano Mendigatxa. Beren lanei esker, erronkaria hobeto ezagutzeko modua dugu egun, On Faustinok Bidankozeko azken euskaldunak ezagutu zituen eta harreman estua izan zuen haiekin.

## EUSKARAZKO IDAZLANAK

Gazteleraz ezezik, euskaraz ere izkiriatu zuen Bargetako euskaltzaleak. Euskara arras ongi menderatuta, gogotsu lotu zitzaion gure hizkuntzan idazteari. Bere izkribuei aberastasuna darie hala hitzetan nola aditzetan, hala joskeran nola esanera jatorretan. Arrunt ongi ikusten da noraino bereganatu zuen txikitan ikasi ez zuen mintzaira, bai gramatikaren aldetik, bai herri hizkeraren aldetik. Ezagun da bai hamaika solasaldi egin zituela euskaldunzaharrekin.

Euskaraz idatzitakoari dagokionez, bi arlo dira nabarmengarri: olerkigintza eta narrazioak. Biak garrantzizko badira ere, olerkitan lortzen du mailarik gorena. Batzuk errima eta neurri librekoak, beste batzuk araturiko neurripean, gustokoa zuen poemak, bertsoak eta kopiak sortzea. Horietatik asko idatzi zituen, gehienek ordea, ez dute argia ikusi. Honatx bere lumak paperean moldatutako olerkiak, ezagutzen zaizkionak, behintzat, gaiaren arabera sailkatuta:



- Erlijioaren eta bizitzaren gorabeherak maiz jorratzen ditu, ondokootan bezala: *Judas, Arratsberan* eta *Iruko*. Azken honetan deabruaz aritzen da hiru poemotan: *Deabruaren murrontzan, Mingai zuri aundia* eta *Ujolde zikiña*. *Baditu multzo honetan gehiago: Bizia zein den eder, Kanta dagiogun Jaunari, Orduñako aldapan, Illunbe ta argi, Gaixoetxeko leiotik* eta *Eriotzeko mugan*. Halaber, sail honetan sartzen dira Euskal Herriko hainbat bazterretako ama birjinen ohoretan izkribatutako olerkiak. Alde horretatik, On Faustino behin eta berriz agertzen du bere miresmena Ama Birjinarengan.

- Maitasuna zentzu zabalean hartuz hiru hauek ditugu: *Txori bakartzu, Uso galdu* eta *Negun leiotik*.

- Bestelakoak: bat bitxia, surrealizatzen joenezakeena, hots, *Zazpi beatz*. Beste bat epikoa, *Martzillako gaztelu andrea*, Erriberako herri horretako anderearen jokabide ausarta goraiatzeko eta laudatzen duena. Bada beste bat *Esna zaitez Bilbao* izenburua daramana,; eta, azkenik, Aita Hilario Olazararen Lizarrako txistulari ospetsuari omenaldi egunean jarritako bertsoak.


17



Marcelino Garde jauna. On Faustinoaren adiskide eta *Principe de Viana* aldiakariaren zuzendari. On Faustino hil zenean oso orri ederra eskainiz haren lana goraiatu eta esker ona erakusteko.

Prosari dagokionez, idazlan franko argitaratu zizkieten hainbat aldizkaritan, arestian aipatu bezala. Bere pentsamoldea islatzen da izkribu horietan, bai erlijiotasunean, bai politikan. Argi idazten du, zuzen, zeharka-meharka ibili gabe, muineraino ailegatzen da beti, gauzak tajuz esanez. Ikusten da hainbat gaik

edo arazok sekulako kezka sortzen dutela harengan. Konparazio batera, bere atsekabea agertzen die monja euskaldun batzuei den dena erdaraz egiteagatik "Zirika" izeneko artikulu batean. Beste batean bere nahigabea azaleratzen da nafarren ezjakintasun politikoaz mintzatzen denean. Bada, bestalde, literatur kritikalanik, Mariano



Hala dio On Faustinok bertso hauei buruzko azalpenetan: "Egilea nafarra da, Ebro ibaiatik hogeit bat kilometrora jaioa. Hori aitortu nahi izan dut guztiok has gaitezen geure euskal hizkuntza ikasten, euskarak eman baitzizkigu antzina-antzinatik, historia aurretik, gure nortasuna ata izakera, gure deiturak, gure herri, mendi, ibai eta zelaien izenak... Gaztelania, atzo goizekoa da gure herrian eta behartuta ezarri digute gutxika-gutxika gure ezpiritua menderatzeko. Ea, bada laster, nafar guztiok euskara, geure hizkuntza berreskuratzen dugun eta, berarekin batera, geure kulturaren izakera eta geure nazionalitatearen arima."

Izeta baztandarrak idatzitako *Dirua galgarri* liburuari buruz egindakoa. Beste lan batean, Irunberrin emandako hiru egun xehe-mehe kontatzen digu; beste batean, berriz, Bargetako herri ipuin bat dakar edota erlijioari heltzen dio *Teila bakar bat naikoa izan zan* izenekoan.

Idazki hauen bidez ere antzematen da herrietako euskararen aberastasuna bereganatzeko egindako ahaleginaren handia, bazterrean utzi

gabe nagusi zen euskara moldea eta euskalkietako hitzak. Hori bai idazterakoan batasunaren aurreko moduak erabiltzen ditu.

Horratx ba, Bargetako On Faustinoren bizitza eta lana, oro jakingarri, orain arte aski ezezaguna, eta, nafar edota beste herrialdetako gizon emakume aunitzendako ikasbide.

19

Ja inoiz guriak ezin ez  
 maiteago dut nere landare.  
 1955.10.10 urtean

! ~~Landareak ezin!~~  
 ! ~~Landareak ezin!~~  
 Logotxo urko lekua sutan  
 landare bat dut anduragor  
 lekua - aizeak, makur, orasi,  
 inguru - onduak, inoiz etan...  
 baina eguneko egun alare  
 biziango da nire landare.  
 ---  
 Landareak nire tenakora dauka  
 andurora nireni - aizea  
 (lotak alon, (gorte mintak))  
 biziako nire jise munda  
 bizi nirean biziak...  
 aizea da nire maitea.  
 Ekarak ezin bati aizea  
 nire aizea bati gora  
 biziak etan gora bidean,  
 tenak andurora nirean,  
 niki dituzun bizi, nire alare,  
 maitea dut nere landare.  
 Baina bizi ez, lagun munda  
 Landareak nire, gorte maitea,  
 bizi ezin lekua nire maitea  
 atzeratzen bizi nire bizi.

